

# 5.MAILAKETA SOZIALA

## 5.1.-Mailaketa soziala:Kontzeptua eta mailaketaren historia.

Historian zehar beti eman izan dira ezberdintasun sozialak(boterean, aberastasunean, eskubideetan,e.a.). Horrelako ezberdintasunak, gertaera naturaltzat hartzen ziren, hau da, berez sortu izan baziren moduan onartzen ziren.Kristautasunak lehenengo, eta ilustrazioak beranduago, aldarrikatu egin zuten gizaki guztion jatorrizko berdintasuna. Gaur egun, ia gehienok bat gatoz ezberdintasun sozialen jatorri soziala onartzerakoan.

**Mailaketa soziala** gizarte bateko kideen sailkapen hierarkikoa da, egozten zaizkien kategorien arabera. Egitura sozialaren ardatz nagusienetariko bat izaten da bertan ematen den mailaketa soziala. Honako ezaugarria hauek izaten ditu:

- 1)Gizarteak bere osotasunean duen ezaugarri bat izaten da, eta ez gizabanako solte batzuk.
- 2)Belaunaldiz-belaunaldi mantentzen da. Mugikortasuna baldin badago ere, ez da erabatekoa izaten.
- 3)Gizarte guztietan ematen da, baina irizpide eta mailen arteko urruntasun ezberdinekin.
- 4)Legitimatua, hau da, nahiko onartua izaten da gehienetan; nahiz eta begi-bistakoak izan ezberdintasunak, goian zein behean daudenek argudioren bat dute egoera hori onartzeko.

Mailaketa batzuk **irekiak** dira, aukera handiak daude maila batetik bestera pasatzeko. Beste batzuk, aldiz, **itxiak** dira. Oso zaila edo ezinezkoa da mailaz aldatzea.

Historian zehar hainbat eredu egon dira:

- 1) Antzinako tradizionala: Irizpide erlijioso-politikoak daude bereizketa sozialen oinarrian. Indarra eta beldur magiko eta erlijiosoaren bidez , gutxiengo bat beste guztien gainetik inposatzen da.
- 2)Esklabotasuna: Pertsona batzuk merkantzia hutsa izaten dira, saldu eta erosi egiten direnak. Gaur egun oraindik ez da erabat desagertu.
- 3)Kastak: “Apartheid” sistema bat da. Debeku eta agindu erritualen bidez maila sozial ezberdinen arteko bereizketa erabatekoa da. Ezin dira nahastu. Indiako kasuan, kasta sistemaren beheko mailan gelditzen direnak kasta-gabekoak edo “ukitu-ezinak” dira.
- 4)Feudala/estamentalak: Ohore estamentalak izaten da bereizketarako elementu nagusia. Abadegoak eta jauntxo feudalek (noblezia edo aristokrazia) daukate ohore estamental berezi hori.
- 5)Despotikoa (ekialdekoa): Arestian aipatutako eredu “antzinako tradizionalaren” hedapen edo jarraipen bat da. Lehenengo talde txikietan ematen bada, honek biztanleri handi baten gainean izaten du eragina. Gertaera horrek ahalbideratzen du bitarteko talde sozial batzuk egotea

goiko eta beheko mailen artean, agintari nagusien laguntzarako eta Estatuaren burokrazia aurrera eramateko . Egon diren zibilizazio handi gehienek sistema izan da.

6)Gizarte industrialekoa (klase sozialak). Industrializazioarekin batera sortutako mailaketa berria da. Teoria ezberdinak daude sortzen duen mailaketa azaltzeko.

## **5.2.-Mailaketaren teoria klasikoak.**

Hiru teoria klasiko nagusi daude mailaketa soziala azaltzerakoan:

### **Karl Marx**

Klase sozialen arteko gatazkak eta etengabeko borroka bilakaera historikoaren ardatza da Marx-en ustez. Hala ere ez zuen klase kontzeptuaren definizio zehatzik eman; “Kapitala” obraren 52. kapitulua amaitu gabe utzi zuen. Hiru eskema ezberdinak daude bere obra osoan zehar:

1)Eskemarik sinpleena: “Alderdi Komunistaren Manifestuan”. Klase sozialak talde nagusi bi dira erabat kontrajarriak:burgesia eta proletalgoa.

2)Funtzio ekonomikoarena: Ekonomilari klasikoek ildo jarraitzen du. Hiru talde bereiziz: soldatapekoak (langileria), kapitalistak eta lurjabeak.

3)Analisi historikoa: Bereziki Frantziako garai hartako egituraren deskribapena. Oso konplexua. Burgesia barruan interes ezberdinak hainbat azpitalde nabarmentzen dira: aristokrazia finantzarioa, burgesia industrial, burgesia txikia, burgesia merkantila. Beste aldetik, nekazalgoa, proletalgoa eta luntzen proletalgoa ere ondo deskribatuko ditu.

Nagusituko dena lehen eskema izango da. Klaseen arteko dinamikaren ondorioz bi talde nagusi baino ez dira geratzen. Burgesian kapitalaren kontzentrazioarako joera emango da; klase ertain tradizionalak pobretu eta *proletaltu* egingo dira eta langileria gero eta pobreagoa izango da zapalketa kapitalistaren ondorioz.

Klaseak ekoizpenaren esparruan ematen diren harremanetan sortzen dira, hau da, arlo ekonomikoan baina bizitza sozialaren arlo guztietara zabaltzen dira:bizimodura, kulturara, interes politikoetara, e.a. Horren eredu garbia garai hartako Ingalaterrako lurjabe handien klasea (gentry)

### **Max Weber**

Hiru irizpide bereizten ditu maila sozialak sortzerakoan: **boterea**, **aberastasuna** eta **statusa**. Euren artean harremanak egon badaude baina ez dira linealak eta zuzenak Arlo soziala, arlo politikoa eta arlo ekonomikoa nahiko autonomoak dira batzutan eta arlo bakoitzean mailaketa berezi bat ematen da.

**Klaseak:**Jabegoa/jabegorik eza; hori da oinarrizko banaketa. Klase kontzeptuaren definizio zehatza eskaintzen du. “Klase egoera berean dagoen edozein giza taldea klase bat osatzen du. Klase egoera probabilitate

multzo bat da: ondasunak izateko, kokapen jakin batean egoteko, etorkizun pertsonalarena; emandako antolaketa ekonomiko batean”, beste era batean esanda “edozein merkatuan dugun kokapena”. Azpimarratu egin behar da bere izaera probabilitikoa eta ez determinista.

**Estamentuak edo “status taldeak”:** Egoera estamentalaren menpe gelditzen da. Komunitate izaera dute talde hauek eta begirune sozial berezi batean oinarritzen dira (positiboa zein negatiboa). Begirune sozial hori “ohore estamentalak” izaten da. Zenbait kasutan bizimodu propio bat eskatuko du. Honako ezaugarriak egoten dira estamentuen oinarrian: bizimodua, heziketa berezi bat, begirune profesionalean, harremanen sareak. Egonkortasun sozial handia dagoenean indarra izango du mailaketa estamentalak. Aldaketa ekonomiko eta sozial arinak ematen direnean klase egoerak izango du lehentasuna.

**Alderdiak:** Boterearen arloak ere izaera autonomoa izango du. Izan dezake nolabaiteko lotura ekonomia edo begirune sozialarekin, baina berez boterea zerbait erakargarria da, bigarren helburu bat izan gabe. Alderdiak erakunde burokratikoak izaten dira programa jakin baten inguruan biltzen direnak eta egituraketa finkoa izaten dutena. Kasu guztietan boterea eskuratzea eta Estatuaren administrazioaren kontrola izango da erabiliko duten tresna nagusia. Boterearen inguruko borroka bi mailatan ematen da. Lehenengoa eta gogorrena alderdi edo erakunde politikoaren barruan bertan. Bigarrena beste alderdi edo indar politikoekin ematen dena da, Estatuaren administrazioaren kontrola lortzeko. Erakunde politikoaren edo erregimen aldaketa ematen denean izaten dute protagonismo gehien.

### **Funtzionalistak.**

Lanaren banaketa handia dagoen gizarte batean mailaketa sozialak erabat funtzionalak izaten dira. Kokapen batzuk besteak baino garrantzitsuagoak dira lan horiek trebetasun edo prestakuntza handiagoa eskatzen dutelako. Maila sozialak ez daude kontrajarriak baizik eta elkarren osagarriak dira. Maila sozialak sailkatzeko orduan hiru posibilitateak ditugu:

- 1) Irizpide objektiboak erabiltzea (diru sarrerak, ikasketa maila, lanbidea, bizilekua, e.a.).
- 2) Barneko subjektibotasuna. Bakoitzak non kokatzen duen bere burua.
- 3) Elkarren arteko subjektibotasuna. Besteok non kokatzen dugun ditugun informazioen arabera. Azken hau statusaren moduko zerbait izango litzateke eta hau da funtzionalistek gehien erabiltzen duten irizpidea.

### **5.3.- Mugikortasun soziala.**

Maila batetik bestera mugitzeko dauden aukerei deitzen zaio **mugikortasun soziala**. Goranzkoa zein beheranzkoa izan daiteke. Zenbait kasutan mailaketaren egitura bera izaten da aldatzen dena eta orduan **egiturazko mugikortasuna** eman dela esaten dugu.

## **5.4.-Mailaketa soziala gaur egungo gizartean**

Egungo gizarte industrial garatuetan hainbat aldaketa eman dira egitura sozialean. Horien artean honako hauek azpimarratuko genuke:

- 1) Erabateko **industrializazio** eta **hiritartze** edo **urbanizazio** prozesua
- 2) **Ongizatezko Estatuaren** hedapena
- 3) **Herri industrializatu berrien** agerpen indartsua ondasun industrialen merkatuetan, horren duen eraginarekin lehendik industrialak izan diren herrietan (lehiaketa, deslektutze arriskuak, migrazioak, lehengaien garestitzea, e.a)
- 4) **Emakumeen** ia erabateko agerpena **soldatapeko lan merkatuetan**. Aldaketa guzti hauek direla eta, mailaketaren teoria klasikoak ez dira nahiko izaten gertaera hauen ondorioz ematen den mailaketa aztertzeke eta kontzeptu berri batzuk landu behar ditugu.

### **5.4.1.-Klase ertainak: tradizionalak eta berriak.**

Gaurko gizarte industrial aurreratuen mailaketan talde sozial zabalena klase ertainek osatzen dute. Bi multzo nagusietan banatu behar dugu hobeto ulertzeke:

**Klase ertain tradizionalak:** Maila sozial honen barruan sartzen dira aspaldidanik nolabaiteko jabego txiki bat izan duten lanbide eta negozio guztiak, hala nola, dendari eta merkatari txikiak, ostalariak, bere kabuz lan egiten duten lanbide espezializatu gehienak, baita profesional liberal tradizionalak, euren kontura lan egiten dutenean; medikuak, arkitektoak, abokatuak, e.a. Negozioak, familiarrak izaten dira gehienetan eta kapital eta lan pertsonala dira euren ezaugarri nagusiak. Marx-en ustez desagertzerik kondanatuta zeuden talde sozial honen kideak, baina desagertu beharrean handitu egin da klase ertain tradizionalen multzoa.

Ikuspegi ideologikotik aztertzen badugu talde hau, gizartearen ikusmolde berezi bat ikusiko genuke bere kideen artean;

- Indibidualtasun erradikal baten defendatzaileak dira.
- Estatua eta erakunde burokratiko guztien kontrakoak izaten dira, sindikatuak barne (edo bereziki, hobeto esanda).
- Egonkortasuna eta tradizioaren zale amorratuak izaten dira, eta aldi berean aldaketa sakonen beldur, hau da, orokorrean nahiko kontserbakorrak izaten dira.

### **Klase ertain berriak.**

Aurrerapen teknologikoarekin, arlo industrialean produktibitatearen sekulako hazkundera gertatu da. Horren ondorioz lan indar fisiko zuzenaren beharra gero eta txikiagoa izaten ari da. Makinek ordezkutzen dute lan fisikoa, eta lanbide berri askok prestakuntza eta lan intelektuala eskatzen dute. Tailerreko/bulegoko langileen dikotomian, bigarren honek hedapen eta hazkunde zabalagoa izan du, baina azken hauek ere soldatapeko

langileak dira. Lana garbiagoa izango da, beste estatus edo begirune sozial batekoa, baina errenta mailan, kasu askotan, lan zikinen azpitik geratzen dena. Ikasketak edo prestakuntza maila altuagoa eskatzen da lan hauek betetzeko baina talde hauen barruan zenbait egoera bereziak ematen dira:

**-Masifikazioa:** Denbora laburrean asko izan dira goi mailako nolabaiteko ikasketak eskatzen duten eginbeharrak. Horrek titulu eta prestakuntza devaluazioa dakar berarekin.

**-Batasun profesionalaren zatiketa:** Prestakuntza berarekin soldata eta lan baldintza ezberdintasun handiak ematen dira, horrek duen eraginarekin errenta mailan.

**-Especializazioa eta dependentzia:** Lanak oso espezializatuak eta zatikatuak izanda, norberaren lanaren kontrola galtzeko arriskua egoten da.

-Lan merkatuan **sartzerakoan** ematen diren **zailtasunak**.

Klase ertain hauen esparruan sartzen dira baita-re ondo kokatutako langile espezializatuak, “langile aristokrazia” moduan ezagutzen dena.

Orokorrean klase ertain berri hauen hedapena eta promozio aukerak oso lotuta daude Ongizate Estatuaren eraginarekin. Horregatik bere jarrera ideologikoak aurrerakoiagoak izaten dira.

Badago ezaugarri bat klase ertainaren atal guztietan ematen dena, honako hau, mugikortasun sozialaren inguruan izaten duten kontzientzia argia, alegia, badakite aukerak daudela bai egoera hobetzeko edo maila galtzeko.

Beste era batera esanda, mailaketa sozialaren inguruko etengabeko borrokaren partaide aktiboak izaten dira. Guztiek dakite epe luzerako helburuak eta plangintza on batek duen garrantzia bizitzaren aukerak ondo erabiltzeko. Horrela bakarrik izaten da posible norberak duen mailari eustea edo hori hobetzea.

#### **5.4.2-Azpiklasea (Underclass).**

Ongizatezko Estatu eta gizarte politikak ezarri diren lurraldeetan, oinarrizko helburu bat pobretasuna eta bazterketa soziala desagerraraztea izan da. Urteak joan, urteak etorri, ikusi izan da nola pobretasun poltsak egitura sozialean erabat txertatuak dauden eta belaunaldi-belaunaldiz mantendu egiten diren. Talde hauek osatuko lukete azpiklasea deitzen dena. Zenbait herrialdeetan azpiklase hauek historian zehar eman den bazterketa etniko eta sozial baten jarraipena izaten dira, edo integratzeko zaila den inmigrazio berri baten ondorioa. Askotan geografikoki ghetto bihurtu izan diren auzoetan edo herrietan bizi dira, horrek duen gorpil zoroaren izaerarekin. Bazterketaren kontzientziak zaila egiten du hortik ihes egitea. Hezkuntza sistemak eskaintzen dituen aukerak gauza arrotz bezala ikusten da, eta prestakuntza gabeziek areagotu egiten dute bazterketa egoera horretan betiko murgilduta gelditzeko probabilitateak. Epe luzeko langabezia, lan baldintza kaxkarra, eta orokorrean lanaren ezegonkortasunak dakarren ondorio txar guztiak eguneroko ogia dira talde

hauetan. Bestelako arazo sozialek erraz agertzen dira eta elikatu egiten dute egoera hori: delinkuentzia mota guztiak, mendekotasunak, e.a. Zerbitzu sozialen bezero nagusienetarikoa bat izaten da, baina hau adabaki bata baino ez da izaten azpiklasearekin.

#### **5.4.3-Kontsumoa eta pobretasun berria.**

Gaur egun gizarte industrial garatuetan ematen den pobretasuna ez da erabateko miseria. Hots, gutxienezko bizi-baldintzak ziurtatuak daude edozeinentzat: janaria, osasun arreta, oinarrizko heziketa, etxebizitza (?). Hala ere, horrek ez du murrizten pobretasunaren kontzientzia. Zergatik?. Gure gizarte kontsumitzaileen gizarte delako. XX. Mendeko bigarren erditik aurrera eman izan den hazkunde ekonomikoa eta gizarte aldaketa kontsumoaren hedapenean oinarritzen da. Marx-entzat klase egitura ekoizpen arloaren inguruan ematen bazen, gaur egun, ekoizpen arloa bezain inportantea kontsumoaren esparrua da. Komunikabideak, publizitateak, auzokoak kontsumorako akuiluak izaten dira. Aisialdia kontsumoaren inguruan antolatzen da. Edozein jarduerak kontsumo motaren bat du oinarrian.

Egoera horretan, gero eta gogorragoa izaten da pobretasuna. Merkatuak egiten dituen etengabeko eskaintzaren aurrean, pobretasuna bizi izaten da aukera falta moduan, etengabeko nahi eta ezin bat. Horrela, diru apurren bat dagoenean, berehala xahutzen da. “Dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon” bihurtzen da bizitzaren filosofia. Horri, “**pobreziaren azpi-kultura**” deritzogu, eta horrek zailtzen du pobrezia zulo horretatik ateratzea.